




# SL®- NA 78

## BURGIKO ARROILA

**HASIERA:**  
 BURGÍ.  
 ERDI AROKO ZUBIA



Burgiko arroilaren ibilbidea oso laburra eta interesgarria da. Burgiko Erdi Aroko zubia eta hegaztien begiratokia lotzen ditu, Ezka ibaiarekiko paraleloan.

Oso ibilbide atsegina da, eta maila guztietako pertsonentzat egokia, ez baitauka ez maldarik, ez oztopo teknikorik. Hala ere, zenbait lekutan, umeeekin kontuz ibili behar da, bidearen eta ibairen arteko tarte handia baita.

Ibilbidearen erakargarritasun nagusiak paisaia eta hegaztiak dira. Izan ere ibilbidea Burgiko arroila izena daukan kareharrizko mehargunean sartzen da. Hegazti harrapariak eta harkaiztarrak ikusteko leku paregabea da.